

Astekaria

Larrun


Gakoak

Bizi
Baratzea**EUSKARA**

Euskararen alorrean "jauzi kualitatiboa" agindu du Pradales lehendakariak, "kontsentsua oinarri"

Euskararen Erabilera Biziberritzeko Biltzarra iragarri dute 2027rako. Irail honetan hasiko dute bidea. Hainbat arlotako 270 lagun bildu dira ekitaldian, eta herritar guztiei luzatu die gonbita Imanol Pradales lehendakariak: "Asmoa da bi urteko epean lanketa zabala eta plurala egitea, eta nazioarteko biltzar handi, heterogeneo eta esanguratsu bat eginda amaitzea".



Imanol Pradales EAEko lehendakaria 'Jauzia gara' ekimena aurkezten, Bilboko Azkuna Zentroan.  Irekia

Gorka Peñagarikano Goikoetxea

2025eko ekainaren 10ean - 10:20

Azken eguneraketa: 13:54



Inprimatu

Inoiz baino beharrezkoagoak dira eskuin muturraren gezurrei aurre egingo dieten hedabide independenteak

EGIN ARGIAKOA

Agerraldiaren testuingurua ez da nolanhikoa izan: Espainiako Presidentearen Biltzarrean euskarari bizkar eman diotenean heldu da *Jauzia gara* dinamikaren aurkezpena, Euskaraldia amaitu eta gutxira, eta justu urtebete igaro denean, lehendakari kargurako hautatu zuten inbestidura plenoan, Pradalesek Maialen Lujanbioren bertsoa errezitatu zuenetik: "Herri hau sortzen jarrai dezagun, euskaratik eta euskaraz". Pleno

hartako anekdotetako bat izan zen, bertso hori diskurtsora ekarri eta gero, *voy terminando* esanez jarraitu zuela gaztelaniaz.

Testuinguruan, lekua: Bilboko Azkuna Zentroan egin du agerraldia Jaurlaritzak. Leku hori ez da polemikatik salbu egon azken hilabeteotan. Abenduan, hango zuzendariak dimisioa aurkeztu zuen, "kudeaketa ereduaren gaineko desadostasuna" argudiatuta. Jone Gartzia Gerrak erreportaje honetan kontatu zuen moduan, Azkuna zentroan hiru proiektu daude egun, liburutegia, kiroldegia eta *proiektu kulturala* deritzona, eta hirurak esku pribatuek kudeatzen dituzte. Bilboko Udalak La Caixari beste espazio bat eman izanak eragin zuen zuzendariaren dimisioa, "azken tanta".

Eusko Jaurlaritzaren *Jauzia gara* dinamika ez da ezerezetik sortu, Ibone Bengoetxea lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak azpimarratu duenez: "600 eragilerekin baino gehiagorekin eseri gara, 350 erakunderekin baino gehiagorekin egon gara, eta 800 bilera baino gehiago egin ditugu". Horren adierazle, agerraldian bertan 270 pertsona baino gehiago bildu izana. "Zuen laguntza behar dugu aurretik dugun erronka estrategikoari erantzuna emateko; euskararen biziberritzearen prozesuan datozen hamarkadetako oinarri eta printzipioak defendatzeaz ari naiz", adierazi du Pradales lehendakariak. EAEko gobernu honek bi konbikzio dituela adierazi du: bata, "biziberritzeari bultzada berria" ematea, eta bestea, elkarrekin egitea, "kontsentsuan". Adierazpen horiek ohi baino euskalki bizkaitarragoa erabiliz egin ditu Pradales santurtziarrak.

Hirugarren biltzarra

Aintzat hartu du Pradales lehendakariak 1956an Agirreren erbesteko Jaurlaritzak Parisen deitu zuen Mundu osoko Euskaldunen I. Biltzarra deiturikoa. Juntadizo hark helburu zuen euskaldun guzti-guztiak elkartze hutsa, frankismopean bizi zirenak zein Ipar Euskal Herrikoak eta diasporakoak. 1987an, Ardanzak berak deituta, bigarrena egin zen.

Orain, Pradalesek ildo hura berreskuratu nahi du. Ez dago argi zein modu zehatzetan garatu asmo duen 2027ko biltzarra, baina argi du "jauzi kualitatibo bat" beharrezkoa dela, eta "kontsentsua oinarri" egin behar dela. "Bestelako emaitzak lortu nahi baditugu, bestelako gauzak egin behar ditugu", adierazi du Pradalesek, eta azpimarratu "ezinbestekoa" izango dela "euskaingintzarekin eta euskararen egitura klasikoekin" loturarik ez duten sektore, eragile eta pertsonak erakartzea. Hain zuzen, nabarmendu du "konplizitate eta aliantza berriak" egin beharra euskaraz dakitenen zein ez dakitenen artean.

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruko datuak ere aipatu ditu Pradalesek, dagoeneko usu entzuna den 2021eko azken Inkesta Soziolinguistikoa. Pradalesen irakurketa baikorra izan da: 30 urteko epean euskaraz dakitenak 528.000tik 809.000ra igo dira, "bereziki gazteetan egon da gorakada itzela", eta, erabilerari dagokionez, "gorakada" nabarmendu du azken 34 urteotan, lau puntukoa.

"Euskara ikasi nahi dutenei, erraztasun ekonomikoak"

Urteotan guztietan, euskararen ahalegin gehienak ezagutzaren arloan egin direla nabarmendu du Ibone Bengoetxea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak. Hizkuntzaren irakaskuntzan, hain zuzen: "Euskara ikasi nahi dutenei erraztasun ekonomikoak jarri nahi izan dizkiegu, eta aurrera egin dugu doakotasunerako bidean".

Apustu hori, Bengoetxearen esanetan, "emaitzak ematen" ari da: amaitzear den ikasturte honetan, mailarik oinarrizkoenean (A1), matrikulazioak %20 igo dira, eta C1 mailan ari diren 16-18 urte artekoen artean, azken bi urteotan %73 igo dira matrikulak. Bi kasu horietan doakoa da euskara ikastea.

Datorren ikasturtetik aitzina, A2 mailan matrikulatzen diren ikasleei murriztu egingo zaie kostua: 310 euro ordaintzetik, 70 eurora pasatuko da matrikula, gutxi gorabehera, Jaurlaritzak aurrerratu duenez.

270 parte hartzaile agerraldian, hangoak eta hemengoak

Gizarte-sektore guztietako 270 ordezkari bildu ditu ekitaldian Jaurlaritzak. Adierazi duenaren arabera, finantza eta enpresa alorreko jendearengandik hasita, euskaltegi, aisialdiko erakunde eta immigrazioari loturiko elkarteetaraino.

Besteak beste, honako hauek egon dira Azkuna Zentroan egin den agerraldian: HITZ Ikerketa Zentroko Eneko Agirre, Janire Atxurra sare sozialetako eduki-sortzailea, Luis Cárdenas kolonbiar jatorriko erizain

eta euskaltegiko ikaslea, Itziar Idiazabal hizkuntzalaria, Joxean Alustiza Fagor Taldeko presidentea, eta Miren Arzalluz Guggenheimeko zuzendaria. Horiez gainera, Mirua musika-taldeak *Mugaz gaindi* abestia jo du zuzenean, eta Jaurlaritzak bat egin du kantuak dioenarekin: euskara mugaz gaindi eramatea.



EUSKARA

KULTURA

EAE

AZKUNA ZENTROA

BILBO

EUSKO JAURLARITZA

IRAKURRIENAK

Matomo erabiliz

- #1 EAEko Kultura Sistemaren Legea, Espainiako eskuinaren esku?**
Gorka Peñagarikano Goikoetxea
- #2 Istilu arrazistak gertatu dira Martzillan, eta bizilagunek adingabeen zentroa ixtea eskatu dute**
Eneko Imaz Galparsoro
- #3 Kanarietara bidaiatzeko oharrak**
Gorka Peñagarikano Goikoetxea
- #4 "Irunen alarde gatazkarik ez dagoela diotenen asmoa da gaiari garrantzia kentzea, inor busti behar ez izateko"**
Mikel Garcia Idiakez
- #5 Ustelduak bai, baina nor dira usteltzaileak?**
Gorka Bereziartua



"Inor ez da ilegala" kamiseta organiko granatea
22,00€

Kanal honetatik interesatuko zaizu: Euskara



2025-06-16 | Jon Fernández
González

UEMAra beste bost herri batu dira eta plan estrategikoa adostu dute

Azkoitian egindako aurtengo
lehenengo batzar nagusian batu
dira UEMAra ondoko bost herri

hauek: Donamaria, Ibarrangelu,
Mundaka, Mutiloa eta
Ormaiztegi.



2025-06-16 | Zigor Olabarria
Oleaga

Osakidetzak gazteleraz eskaintzen dizkie saioak Gasteizko Zabalgana auzoko D ereduko haurrei, eta bi ikastetxek uko egin diote zerbitzuari

Hainbat urtetan jarduera hezitzaileak gazteleraz jaso ostean, bi urte direla Zabalgana ikastetxeak euskara hutsean ematea eskatu zion auzoko osasun zentroari. Osasun zentroko arduradunek diote ez dutela horretarako baliabiderik. Osakidetzak egoera ikasturte honetan... [\[+\]](#)

2025-06-13 | Maite Goizueta Iaben

Euskadi nazioa da

2025eko Aberri Egunean, Imanol Pradales lehendakari jaunak "Euskadi Nazioa da" eta "hemen jarraitzen dugu eta jarraituko dugu, gure hizkuntzarekin eta gure nazio nortasunarekin, ez izan zalantzarik", ozenki esan zituen.

Euskalduna naizen aldetik,... [\[+\]](#)

2025-06-13 | [Ahotsa.info](https://www.ahotsa.info)**EUSKARAREN DEFENTSARAKO SAREA**

“Bidegabea da euskara lanpostu publikoetan ez baloratzea”

Euskararen Defentsarako Sareak elkarretaratzea egin du Nafarroako Parlamentuaren aurrean ostegunean, aldarrikatzeko lanpostu publikoetan hizkuntzak baloratzen badira, euskara baloratzen ez den lanposturik ez litzatekeela egon behar. Eta beraz, Nafarroako Gobernuak egindako... [\[+\]](#)

2025-06-12 | [Urko Apaolaza Avila](#)

Inguma datu-base berria aurkeztuta ekin die UEUk aurtengo ikastaroei

Udako Euskal Unibertsitateak hogei jardunaldi eta topaketa antolatu ditu ekainaren 11tik hasita hilabete batez, hausnarketari bide emateko eta "arnasgune akademikoa" izateko helburuarekin. Inguma datu-base berritan unibertsitate mailako jakintza alor ugariak ia 50.000... [\[+\]](#)

2025-06-12 | [Euskaraldia ekimena](#)

Belarribizi eta ahoprest

MULTIMEDIA - FILM LABURRA



2025-06-11 | Roser Espelt Alba

Euskaraldia eta merkatua

Aurten, berriz ere, Euskaraldia izan dugu. Bi astez, gure hizkuntza-ohiturei erreparatu diegu, geure buruari galdetuta zenbat eta nola egiten dugun euskaraz. Baina ariketa horretatik harago, galdera handiago bat ere pizten da: zeren arabera da hizkuntza baten biziraupena?... [+]



2025-06-11 | June Fernández

MELOI SALTZAILEA

Diktadura

Erdaraz hitz egiten duzu, Francok nahi zuen bezala' kamiseta dut gogoan egunotan, OlaXonMario Galiziako sortzaile digital kuir eta independentistaren diseinua.

Gogora ekarri dut, lehenengo, Isabel Díaz Ayusok alde egin duenean Imanol Pradales lehendakariak... [+]



2025-06-10 | Euskaingintzaren Kontseilua

Eztabaida
epaitegietatik
Legebiltzarrera
eraman beharra
dago, euskarari
estatus berri bat
emateko



2025-06-06 | Jon Fernández
González

EAEko euskaltegietan A2 mailan matrikulatzea oraingoaren laurdena kostako da

Datorren ikasturtetik aurrera, euskaltegietan A2 mailan matrikulatzen direnek orain arte bezala 310 euro ordaindu beharrean, 70 euro ordainduko dituzte. Maila gaindituz gero, ordaindutakoa itzuliko zaie ikasleei.



2025-06-06 | Jenofa
Berhokoirigoin

Ostiralean hasi eta urte bukaera arte iraungo du Arestiren ekarria ezagutarazteko Bilboko egitarau oparoak

Euskaltzaindiak, EHUko Gabriel Aresti Katedrak, Gabriel Aresti kultura elkarteak eta Bilboko Koral Elkarteak elkarlanean antolatu dute egitaraua. Ostiral honetan, adibidez, Bilboko

Udalaren Txistularien Bandak
Aitaren Etxea emanaldia joko du
Euskaltzaindiaren... [+]



2025-06-04 | Arkaitz Zarraga Azumendi

Talentu bila

Talentua garai honetan zaindu, babestu eta erakarri beharreko altxorra ei da. Horregatik, Kutxabankeko *lehendakari* Anton Arriolak hezkuntzan ingelesari garrantzi handiagoa eman behar zaiola adierazi du, eta euskara horretarako oztopo izan daitekeela Poloniatik etor litezkeen... [+]



2025-06-04 | ARGIA

Osasun arreta euskaraz bermatzeko zortzi eskaera egin dituzte EHEk eta Aintzatek

Osasungintzako 501 langilek bat egin dute zortzi eskaera zehatz dituen manifestuarekin. Helburua, osasun arreta euskaraz eskaini, eman eta bermatzea, "edonon eta edonoiz, maila guztietan eta ahoz zein idatzizko harremanetan".



2025-06-04 | Adur Larrea


Telebista ona



2025-06-02 | Jon Fernández
González

Faltzesen euskarazko eredia eskatu dute eta Nafarroako Gobernuak ezetza eman du

Hamaika familiak egin dute ikastetxe publikoan D eredura pasatzeko eskaera. Zentroak baiezkoa eman du, baina Udalak ere, baina errefusatu egin du Nafarroako Gobernuak "espazio falta" argudiatuta.



CC BY-SA

Edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

SAREKO KIDE



Ekoedizioaren Institutuko

bazkide

Astekariaren azterna
ekologikoa

JARRAITU



LAGUNTZAILEAK



KONTAKTUA | EGILEAK | PUBLIZITATEA | RSS JARIOAK |
PRIBATUTASUN POLITIKA | WHAT IS ARGIA?